

HIZTEGIA

a. (HA, hura) Aquel, aquél. | Emon tzen dirue arentzat etzan naikue. | A gixajue estable ondo. | A dok ixetekue! | A estable ondo. | A il sala ya ixengo dire bost-sei urte. | Ixetes a da, ixetes, propidxue. | Arixen salí da. | Agaitti pa oneri gabilloi txikidxe esate tzeu guk orreri miru txikidxeri. | Atzakuntzi emotie: berba e emotie. Ni oin sugas nau, da ara esanda deket beste bat e juteko aiñ orduteko, da sugas emen berbetan nau les, "Eske arek emoste atzerakuntzie". Se atrasu eittosu ba, tardau eittosu geidxau, da aittik esaten dxako "Atzerakuntzi euki dxuat".

abade, abadie. (ABADE, apaiz) Cura. | Abadiiek, abadiiek erute basen orrek. Abadiiek, erriko abadiiek. Ori Iberreguluko semie, Etxandia, Don Jose Etxandia san, da ak eitte ban, ak eitte tzen influentzidxe, afesiño edo olan bertsutan da amen e ori gixon bat ori etorri san, Bilboko, Gasetako sera, direktori ekarri ban baten, erreire, beran laguna dala ta. Da bat aixe ixen san bertzolaridxe, plasan ei ben. Da bat aixe ixen san Lusio, pastorie. Da besti ixen san Oñiskue, gastia. Da an alkarras, batera seriñ eitten. Da Bilbora erun, ba Bilbora erun axek, erriko Don Josek. | Or doye abadie. □ **abade ein.** Ordenarse cura. | Abade ein san alargun garatute gero .

abadegei, abadegeidxe. (ABADEGAI, apaizgai) Seminarista. **abadetza, abadetzie.** (ABADETZA, apaizgo) Sacerdocio. | Abadetzarako ikesten ibili san. **abadetze, abadetzie.** (ABADE ETXE, apaiz etxe) Rectoría.

abai, abaidxe. (ABAI, abaraska) Panal de miel. | Abaidxe erlak eitten dabe, estidxe eitten dabe an da. | An barruen erliek kunakiñ eta, abaidxe esate dxako areri, olako trosuk euk itte ttus... | Abaidxek e gero, arek kendu eittosus, esta? Da arek oten di estis beterik, da a estidxe eitten da apartau, gero olan sakatute ser batas. Da a besti abaidxe eitten da ipiñi ontzi baten, tartera batenedo, da urtu. Da gero a botaten da ser ontzi batera, siketzen danin fuera! | Da a ixeten da barridxe suri-suridxe da. A da ikusgarridxe! Da gero baltzittu eitten da. Abaidxe esate dxako arexeri. Elixako onek kandelak -eta eitteko-ta.

abaila, abaillie. (HABAILA) Honda. | Abaillie, kordel bi tte nar rutxue ipiñi, ta an ipiñi arridxe ta emon bueltak.

abandonau. (ABANDONAU, abandonatu-bat.) Abandonar, dejar de lado. Ik. itxi. | Itxi ein deu, abandonau ein deu. | Abandonaute dxak. | Da oiñ e etzi pe danak abandonaute -ta das.

abar, abarra. (ABAR) Etcétera, y demás. | Bai, basan e keye ta basan e su eta abarra an karabidxan, Jesus! Baya asko biar! | Suk gixona orduko mille peseta pagetan basoyes, da an arridxe ataraten basaus tiruek eta abar, au te ori-tte arek egurrek ipintten -da urteten tzu... Da alan itxi sin, alan itxi ban jentiek. Kostue, da bier gogorra. | Uli sero ebei! Rape jun giñenin. Asi eurrin de atzera. Da akatza ta abarra-ta. Ala

eurrrera! Bai, soldadutzi gogorra ixen san ordun be, bai, soldadutzi be. □ gusur eta abarra. Sarta de mentiras. | *Olan diskusiñorik egoten danin edo, bata bestiri esate dxako: "Gusurre ta abarra esate dosu suk!"* | *Gusur eta abarra orrek esaten deu.* | *Saltza banderie da danakin nasteten dana, gusurre ta abarra ta olaku. □ kontue eta abarra.* Cantidad de cuentos, historias. | *Barretzu da beti ri-ra-ri-ra-ri-ra, kontue eta abarra esaten deu.*

abarka, abarkie. (ABARKA) Abarca. | Abarkak ipiñi, kendu . | Len abarkak narruskuk eitte sirin etzin, aittek eitte sittun abarkak, neuk esautu ittut, eta nire moduko jentik danak esautu deu, abarka, da etzan ibiltten gomasko abarkarik, espabese narrusko abarkak, narruas etziñ eiñiko abarkak. Da a narru ixate san, etzien ba neguen gabonak eurretxun -edo ba txala iltte san, da eitte san okelias, gatza emote dxakon, da ba sesiñe. Da aren narrue eitte san, ba goidxen, goiguruen, kamaran josi eitte san, aren narruek sabal-sabalsabal ipintte untzikin, taka-taka-taka-taka-taka josi eitte san narrue dana, joste san da iñor ete san abarkak eitteko, an narrue. Da aregas eitte sirien abarkak. | Geure aittek ibiltte sittun orrek abarkak . | Abarkie... berton, etzien eitten sirenak, sesiñe eitten san aintxiñe, ba aren narruas abarkak eitten siren, etzien eitten siren. | Nik neure aitte sana esautu naben, da aittagiñerreba be bai, abarka eitten, da arek egiñiko abarkak makiña bat bider jantzi gendusen eskolara juteko. Ointxe be -oin gomaskukin ibiltte nas baya -, ointxe be asko estot jansten abarkarik baya. □ **abarka kordela.** Cuerda para atar abarcas. □ **abarka sididxe.** Punzón para agujerear las abarcas. Ik. puntxeta. Abarka siridxe ere esaten da. | Abarka sididxe da antxiñe abarkari eta onek eitte tzesan e... Ser esango tzu pa? Aidxu, aidxu bakixu ser dan, aidxu? Aidxu eitteko abarka sididxas eitte san sulu. | *Abarka sididxe, beste bat punte sorrotza dekona egote san, da areas ein sulue nasaitxuau.* | *Da abarka sididxe ote san, baya etziriñ igula ixeten. Puntxeta lusie, sera, puntie sorrostute. □ gomasko abarkie.* Abarca de goma. □ **narrusko abarkie.** Abarca tradicional hecha de cuero. | *Bai, etzien eitten siren, neu eskontzeko... nire aittek pe berentzako, bera arekin askos obeto ibiltten sala ta, berak josten sittuen etzien; bai abarka narruskuek esate eutzen .*

abarkadun, abarkadune. (ABARKADUN) Que calza abarcas. | *Abarkadune abarkakin dabillen personiri esate dxako.*

abarketa, abarketie. (ABARKETA, espartin) Alpargata. | *Onk aspidxen gomie deke, abarketiek eukitten deu..., sorue esate tzeu.* | *Abarketiri, liñuas eiñekuri esate dxako soru. Abarketiñ aspidxe liñuas eitte ben, len, oiñ estai segas eitten dan be.*

abarketeru, abarketerue. (ABARKETERO, abarketagile) Fabricador de alpargatas. | *Abarketerurik emen es. Gerniken ote san abarketeru.* | *Abarketeru abarketak eitte ittuna da.*

abarkol, abarkola. (ABARKA OHOL) Tablero, tabla que se usa para marcar las pieles destinadas a hacer abarcas. | *Abarkolak etziñ egote sin. Aintxiñe abarkak joste siñ etzin.* | *Abarkola ta olako punte sorrostxuas e, esate gentzon guk, sera, kirtentxu esate gentzon. Malluketxuas jo ta eitte dxakon orrek, kortetxuek. Osea, kurtidu lelengo, narrue kurtidu apur bet, masuas-da jo da kurtidu eitte ben, nik ikusi be ein dot, da gero joste ben ugelagas, bueltan -bueltan ugelagas joste ben. Da gero eitte tzesan sertxuek (aidxuk) eta ipintte tzen kordela.* | *Ixeten di txikidxek, umiña diñak. Eunditxu diñak, eunditxuauek. Da ba abarkola ba alakoxi da. Nausidxena be bai.*

abaspelo, abaspelue. (ABASPELU) Pánfilo, alma de cántaro. Eibar aldean abospolo esaten ei da (Etxebarria, Toribio, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, Euskera, 1966). | *Egon ixilik, abaspelu ori!* | *Sustreirik pako berbak esaten dittunari abaspelue esaten dxako.* | *Pisket, sentzune gitxi eukitten deu abaspeluek.* | *Abaspelue: ako, erdi inportantzirik parik, onako serak, disparatiek sertzen dittunari, "Ego adi ixilik, abaspelu ori!"*. | *Txori bat edo, animalidxe bat ikusten badeu, ari begire egon da egon da egon, areri esaten dxako abaspelue.* | *Abaspeluek esa eustek, da abaspeluk esaneku, arek esaneku..., broma modun edo... □*

abaspeloko gausie. Cosa sin fundamento. | *Abaspelue esate dxako, estakid xen bate..., ya aidin les entzuten danari: "Abaspeloko gausie ixen da". Ori da berba bat, ba, ia sigur estakidxena noberak.* | *Abaspeloku ixen da.* | *Abaspeloko geusie: ba, esate baterako, olako geusie esta jasoten, jasoten estana ixaten da. Esaten da, aixik eruten deu, abaspelun, baya abaspelun guk esate una, ba esta jasoten, jasoteko berbie esta ixeten.*

□ **abaspelun. 1.** Abobado, -a. | *"Abaspelun dau": lerdo modun igul entzuten edo ola plantau papau moduen edo. 2.* Al buen tuntún. | *"Abaspelun esan deu": seinde aidin dabillen geusi lakue esan gure deu abaspeluk.* | *Abaspelun dabillen geuse bat da aidin dabillena esateko les, abaspelu.*

abellana, abellanie. Avellana. Ik. *urritxie*. □ Ondoren azaltzen da zein den *abellanie* eta zein *urritxie*: | *Abellanie esate dxako erosiñekuri. Kakaguesari abellanie esate dxako. Baya emen urritxiri beti urritxi esate dxako. Emen lurrek emoten dabena urritxie da.*

abellano, abellanue. Avellano. Ik. *urritxie*. *Urritxa* jatorriz hemengoa denari deitzen zaio; kanpokoari, berriz, *abellanue*. | *Abellanie emoten dabenari abellano esaten dxako; baya urrak emote ittunari, urretxie.*

abemaridxe. (ABEMARIA, agurmaria) Ave María.

abendu, abendue. (ABENDU) Diciembre.

aberastasun, aberastasune. (ABERASTASUN) Riqueza, bienes. Ik. *ondasune*.

aberastu, aberasten. (ABERASTU) Enriquecerse. Sin. *dirutu*. | *Gabetik goixera aberastu san, estakigu selan baya*. | *Aberasteko etorri siren ona*. | *Aberastute dxak*. | *Orrek ainbeste etze ei deu*. Ori aberastute dau. □ **sorri aberastue.** Nuevo rico, enriquecido de repente. | *Orduko pobre -pobriek ixen badire, da gero jaso ein badire esaten da, euki badabe suerte bat diru eitteko: "A sorri aberastue!"*. Burle moduen esaten da ori.

aberatz, aberatza. (ABERATS) 1. Rico, -a. Ik. *aundikidxe, dirudune, eskurdune*. | *Aberatza ixen san baya alperrikue san*. | *Aintxiñekuek ganaduas aberatzak ixen siren*. | *Oinguek dire diruas aberatzaguek*. | *Aberatz plantie ein, da pobre bixi*. | *Aseridxe, bai, ori bai bada aseridxe, ori klaru dau ba*. Dios abidadi ori! *Diabruk bayo okerrauk dire!* 2. Rico, -a, abundante (en algo). | *Urratxak aberatzak daus (garaun asko dekela)*. | *Lurre betien: dana erneten dauela bedarra, ona, nai eskasa, ba etorri biar estaben bedarra, etorten dala, da etorri bi dana be bai*. Aberatza datorrenin, oparo datorrenin.

abesedaridxo, abesedaridxue. (ABEZEDARIO) Abecedario. | *Esin ikesi suan abesedaridxori pe*.

abidxada, abidxadie. (ABIADA) Velocidad, impulso. Berriemaile baten arabera, Nabarnizen *abidxadie* esaten da gehiago, baina *abantadie* gazteei entzuten hasi zaie orain. | *Orrek daroi abidxadie!* | *Orrek deko abidxadie!* | *Abidxadan*. | *Ba egurren puntetik araxe burdidxek e goitti bera sartute eukitte ban taketin -edo lotze dxakon, burdidxek e abidxada aundidxe goitti bera artu esteidxen, da ganaduk sostenidu deidxen*. | *Lañu be klase das*. Batzuk e... *Dabillena be bai, igul korridu eitten dau, da batera ta bestera ta "Ño, lañu dxabillek abidxadie!" edo "Trumoi dxabillek abidxadie!"*. □ **abidxadan.** Velozmente.

abidxadaka. (ABIADAKA) A toda prisa, apresuradamente. | *Abidxadaka: aringaringe doiñiñ-edo*.

abidxe, abidxie. (HABIA) Nido. | *Txori abidxie*. | *Indurri abidxie*. | *Txori abidxek topetan ibilli*. | *Txoridxek abidxek eitten daus*. | *Arrautze abidxe beterik dau*. | *Gabilloidxek arbolan be, sostarrakin be eitten dabe abidxie*. | *Sakapin dxekosak ab idxak*. | *Udebarridxen txori parejie junteten dala, arra da emie, da gero bidxe arte, abidxe, kunak asteko*. | *Udebarridxen eskolarik egoten esanien mendire jueten giñen txori abidxak topetara*. | *Gero arrautzak ein barik, abidxan egoten da, da an lokatu eitten da*. | *Topetan amak erute nendun ni be*. "Etorri! Olluri abidxi topau bi tzeu te". □

Perretxikoak sortzen diren guneari ere *abidxie* esaten zaio. □ **txori abistan.** Buscando nidos de pájaros. | *Len txori abistan beti mutikuek*. *Gastetan ba txori abistan*. | *Txori abidxetan jun dire*. | *Sasi txori buru eundidxauku esate gentzon aundidxauri*. *Bestiri sasi txoridxe*. *Orrek sasidxen abidxie beti*. *Beti sasidxen*. *Len txori abistan mutikuk e, bueno guk topeten abistan*.

abidxeu, abidxau, abidxe, abidxetan. (ABIAU, abiatu-bat.) 1. Comenzar, ponerse en marcha. | *Trena abidxe dok*. | *Euridxe abidxeu deu denpora luserako*. | *Denporik e bariasiñoye abidxe dau*. | *Barridxen euridxe abidxeu deu*. | *Abidxau da ara juteko*. | *Oin be garue abidxeu ein bi deu*. | *Eurre abidxau deu*. | *Abidxau: asten dana, asi eitten dana*. | *Denporada baten etorri barik egon da, baya atzera abidxeu da*. | *Bueno, mutil*

kaskondue ba, umetako denporie ya juti dxakoniñ edo, eskolara abidxetan daniñ -edo, ta or dosena bat edo amalau-amabost urte eukitte ittun artin, mutil kaskondue. 2. Comenzar a acudir. | Sarrau danin be bai tte eskolara asten danin be bai-tte, estau eukitten ipiñiri-tte. Ixeten da sartxuau danin be, mutil kaskondue edo gastetxuau danin be ba "Kaskondute dau" te ba "Eskolara abidxau da".

abil, abille. (ABIL) 1. Hábil, diestro, -a. | *Ori mutil abille da. | Orren biarrien abille dok ori. 2. Avispado, -a, vivo, -a, que tiene malicia. | 'Jentille' da abille, erdi geistotzue danari esaten dxako.*

abillidade, abillidadie. (ABILDADE, trebetasun) Habilidad. | *Orrek deko abillidadie! | Dirue eskatu bierrien, abillidadie eskatze ban.*

abioi, abioye. (ABIOI, hegazkin) Avión. | *Ogeta lau orduan mundun bestaldien paraten dire abioidxas oin.*

abittu, abittue. (ABITU) Hábito (de los religiosos, -as). | *Abittue artu, jantzi.*

abixaridxe, abixeidxe, abixadidxe. (ABIZARI, habiondoko) Nidal, huevo que se deja en cierto sitio para que las gallinas se acostumbren a ir a él a poner. | *Abixadidxe, ollu bertan egon deidxen. | Abixaridxe: olluk arrautzi eitten dabena, abidxan dauna, arrautze postixu-edo, olakue.*

abixau, abisten. (ABISAU, abisatu-bat., ohartarazi, gaztigatu) Avisar, advertir. | *Baya len emen kopradixen egote giñen e a sortzi -amar mutil, da neska pe beste ainbeste, da olan txalik eitten ebenin, abiste ben juteko, esne murgille daula, da sarataka. Oiñ iñok estau gure ori -oriori-oridxe, lodi-lodidxe. | Estot abixau. Abixau barik etorri nas.*

abogau, abogaue. (ABOKATU, legelari) Abogado. | *Abogau karrerie. | Abogaduek dausen arte, demanda geidxau ixengo da.*

abogautze, abogautzie. (ABOKATUTZA) Abogacía (profesión). | *Abogautzan eitten dau biar.*

abrigue. Abrigo. | *Abrigue esaten dxako neguen otz daunin jansten dana, ganerengo jansten dana, abrigue. Ori erderasko berbi ixen eingo da, baya emen be abrigue esate dxako.*

aburridu. (ABORRIDU, aborritu-bat., hastiatu, higuindu) Aburrirse. Ik. *gogaitsu. | Gixona animalidxeekin aborridute dao. | Amen nao ya aborridute. | Aburridu ei este orrek. aburridu, aburridue. (ABORRIDU, aborritubat.) Aburrido, -a. | *Neutzako aburridue ixen da ori geuse ori. aburrimentu, aburrimentue.* Aburrimiento. | *Ori da aburrimentue!**

adaba, adabie. (ADABA, adabaki, adabu) Remiendo. Alkondarari egiten zaionari pasadie esaten zaio. Abarkei, berriz, *sopittie* ipintzen zitzaion. *Ipingidxe* ere esaten da. | *Ipingidxe? Bueno, au. Da emen adabi esate dxako baya ipingidxe. | Prakak adabias dxabixek. □ adabie ipiñi.* Poner un parche. | *Adabi ipintten boutzek. | Prakarari adabi*

ipintten dabil. | Ia Pilar, ipiñidxosu oneri adaba bat. | Ipiñidxosu oneri prakari adaba bat.

adabau, adabeu, adabetan. (ADABAU, adabatu-bat.) Remendar. | *Orrek prakak ederto adabeute dxabixek. | Adabautako erropakin dxabik. | Prakak adabetan dabil.*

adaburu, adaburue, araburue. (ADABURU) **1.** Conjunto de correas, lana y adornos que llevan las vacas sobre el yugo. | *Adaburue da..., ganadu busterridxe ibiltten dabe, bustertute ibiltten dire, oin geuk estu bustertzen baya, da busterridxe ipintte dxake da edikin lotzen dire. Arixerri esate dxako adaburu. Ganadu lotzen danari. | Adaburue beidxeri ipintte dxaken. .., busterridxen ganetik ipintten dan narruri esate dxako, adaburu, adaburuko narrue. | Partiki da beidxen busterridxen sartze sana. Adaburuen. Adaburuk erute ban e onakoxe sulue, da antxe sartze san ori, burpartikie. Da adaburuas. **2.** Copa del árbol. | *Adaburu andidxe deko orrek arbolik. | Arek deko adaburue. | Adaburue goiko partiri esate dxako, arbolin adaburu. Goidxeri. Beye trangu ixeten da, da goidxeri adaburue. | Araburue aren bururi. Araburue esaten da. An trangu dau, andi gora eitten deuna araburu esate tze adarrari be. An gora dasen adarrak, "Araburu itzela dxekok ak!". Iguel goidxen dausen adarrak. Baya bera trangu barik, a bueltatik aste dxakosena gero, se pagu jeneral jeneraliñ iñustu bada, ba sabaldu eitten da, arek adarrak ebeitte dxakonien buru eitte dxako an itzela, da andik ainbeste adar emoten deu. Da pago burue. □ **adaburuko narru.** Cubierta de cuero que se colocaba sobre el yugo. Ik. *busterri ganie.***

adaburuko, adaburukue. (ADABURUKO) Conjunto de correas, lana y adornos que llevan las vacas sobre el yugo. | *Adaburue esate dxakon, beidxek bustertute doyesinin, adaburukue, ardin narrue, busterrin ganien jarte san a, pintxidxek e, dana gora, adaburukue axe ixete san. Beidxeri geispetxue edo, eurieitiik edo, apur bet tapetako beñipein.*

adaka, adakie. (ADAKA) Veta del árbol. Ik. *adarkondue. | Adakie. eukitte ttus olako sulotxu lakuek serien, materidxala total lisue barik, olako unekadatxuek, adarra eukinekuek edo. | Arbolik igul eukitten deu adaka bat, eta esate da: "Adaki euki deu te!". | Adakie, jeneral, adar loditxuri barik, konduri esate dxako. | Egur txikidxeri esate dxako adakie, beste sati bet, edo beste punta bat dekonari-edo. Bera lixuri etxako esaten adakie.*

adaki, adakidxe. (ADAKI) Ramita de árbol para quemar. | *Gure denporan asi sirin ik etza eitten mukurras. Ostantzin dana adakidxe sartzen du. | Adakidxe sue eittekuri esate dxako, egurreri. Egurre, se esango neu?, mukurre bayo meyeaue, da a egur meye bayo lodidxaue. | Txondorra, len esan eitten mukurrekin iketzik. Len astillie edo adakidx e esate dxakona, osue, baya es alako lodirik -eta. Da oin lodidxeri esta eitten erdiko taketa sartun, espabe sulo bat itxi, de andik sue erun. | Adakidxe da ebaiñeko egur bat, egur lodidxe be-estana, ta meye be- estana, adakidxe, beko suen sartzeko.*

adapu, adapue, arapue. (ADAPO) Nudo de árbol. Ik. *koskie. | Esate baterako, arbola bat bada bigurra, da olako adar txiki asko dekona: adapu asko deko. | Adapue-ta, egurrek or fallue dekon lekun. adapue deko emen. | Adapuek ixete dire, arek bolak eta, eukitte ittu gogorrak. An lixu-lixue ixen bierrien, adapue esate tzau guk areri. | Adapue da ebaitte gelditzen dana, ebaitte gelditzen dan markie, onek ixeten dire adapuek,*

egurrek dekosan adapuek. | Lastrie? Bai, lastri liorra. A... seinde ori arapue esate dxako, arapu , ba antzera deuna lastrie. Lixu barik lastri. Besti lixu esate dxako, oten dana gosatzu, egur lixue.

adaputzu, adaputzue. (ADAPOTSU) Madera nudosa, mala para la construcción. | Dios, adaputzue dok au!

adar, adarra. (ADAR) 1. Cuerno. | Adar bakarreko beidxe da ori. | Ganadu adarras eiñeku da. | Adarrik pakue. | Adarras jo . | Beidxen adarra. | Orrek akerrak dxekosak adarrak! | Txolota adarras eiñeku basue da. | Txolota adarreskue da . | Adarretatik kolpeterik etxake gustetan. | Armakerie. Bai. Konbestako, bei batzuk igul eukitte siren adarrak onan. Beste batzuk e onan da ederto, "Ño, orre dxok armakera ederra!", "Etxosak e adarrak ondo", "Armakera eskasa dxekok". 2. Rama. | Adar txikidxe, seye. | Adar igerrak. | Arbola adarrak . | Perejil adar bat. | Emen adarra esate tzeu, errami barik . | Alderdi gustidxe adarres beterik daus . | Arbola adarra jeusi eitten dok kamiñuen. | Mendue sagarrari, edo madaridxeri-edo inkete dxakon adarra, adar barride etorteko: mendue. | Arbola bateri adarrak ebaten badxakos, ba "Iñusi ein dot" esaten da. | Pago burukiñ iketza eitte san. Ba eurek bola utzekin. Arek es sin pageten ainbeste, se adarras... Adarra geidxau pagate ben asko be. | Piñu libreti da, piñu sasidxas edo sikiñe badau, ba arek andik kentzie. Da beste batzuk arrama esate tze. Guk adarra esate tzeu orreri be. Beti guk adarra. Da askok arrama esate tze. Arrama garbittu te piñu librau. Da lagun txikitxue sasidxas-da igull oten da, ta a garbittu bi da urten deidxen ondo. 3. Ramal, ramificación. | Bide adarra goraiño doye. | Beko bidetik adar bat doi gora. □ **adar apala.** Cornigacho, -a, aplícate al toro o a la vaca que tiene los cuernos inclinados hacia abajo. | Jeneral, adarrak ixeten dire olan gorantz, adar jagidxe esate dxako alakuri-tte. Adar apala apur bet berontz dekosena. | Bueno, apala, estaitt, apala esate dxako beidxeri ixena, apala bada. Da berantz-edo, susen dekosena -edo, olan gorantz estekosena, apala, adar apala. □ **adar jagidxe.** Corniveleto, de cuernos levantados. | Jeneral, adarrak ixeten dire olan gorantza, adar jagidxe esate dxako alakuri-tte. □ **adar kimue.** Renuevo, brote, retoño. | "Arbolie sostortute gelditzen da": Arridxe ein de ba... ser esangot neuk...?, arbolie isten deu ba billosik lesedo. Orridxe kentze tzo, orridxe ta adar kimutxu pe iguel, olan e denporali dauniñ e, denporale txarra dauniñ e. | Adar kimu da adarrari puntan dekosen orridxek edo lorak kentzie, adar kimue. Adarrak kimaute. □ **adar txordue.** Cornibrocho, -a, dícese de la res vacuna que tiene los cuernos con la punta inclinada hacia adentro. | Gu geuk txordu esate tzeu, olan bei batek olan e, adarrak olan euki biarrien, olan adarrak dekosenari, txordu da, bei txordue, adar txordukin. Eurrerans barik, olan apur bet barrurentz. Da olan adar txikitxue, apur bet barrurentz. □ **adarra jo.** Tomar el pelo. Ulie artzen abil i erabiliagoa da orde. | Potrojoder: bestiri adarra jo ta kristonak eitte tzesena, "I as potrojoder, i!".

adarburu, adarburue. (ADARBURU) Copa del árbol. Ik. adaburue , burue . | Adarburu da trongu amaitsu te gero... Adarburu esate dxako.

adardun, adardune. (ADARDUN) Cornudo, -a, con cuernos. | Adardun ganadue. | Adardun kakarraldue, da adarrik pakue.

adarka. (ADARKA) A cornadas, golpeando con los cuernos. □ **adarka ein.** Cornear, dar cornadas. | *Adarka eitten deu onek.*

adarkada, adarkadie. (ADARKADA) Cornada. | *Baten librue leiduten juen nitzen da bei batek adarkadie emo eusten.* | *Topekie da topekadie alkarren antzekuk -edo, esango neke bat tirilla baya..., topekadie da seinde euntz batek e emoten daben e adarkadie, nai ari batek bai bardin emoten daben adarkadie.*

adarkari, adarkaridxe. (ADARKARI) Acorneador, que da cornadas. | *Aulestiko sekorrak adarkaridxe dire.*

adarkondo, adarkondue. (ADARKONDO) Rama pequeña. Ik. *kondue* . | *Adakie, jeneral, adar loditxuri barik, konduri esate dxako.*

adarmotz, adarmotza. (ADARMOTZ) **1.** Cuerniquebrado, -a. | *Bei bateri be bai. Adarra apurtzen badxako, igul jeusi-edo, deskoideten basan-edo, jeusi txarra-edo eukitten badeu: adarmotza.* **2.** Árbol mondado de ramas y copa. | *Adarmotza: ya adarrak kendute dekosana, arbola bat adarrak ebeitte badau, ba "Adar mostute dau", edo "Adarmotza dau".*

adarrondo, adarrondue. (ADARRONDO) **1.** Fondo de la rama. **2.** Base del cuerno.

adartzu, adartzue. (ADARTSU) **1.** Frondoso, -a, lleno de ramas. | *Atxa arbolie adartzu dok .* | *Beste idie da adartzue.* **2.** Cornudo, -a, de gran cornamenta.

adi. (ADI) Atentamente, con atención. Ik. *ernei.* | *Adi dau.* | *Adi egon!*

adin, adiñe. (ADIN, adimen) Entendimiento, juicio, razón. Ik. *sentzune.* | *Adiñe galdu: ori se esangot neuk? "Adiñe galdute deko", ba ya se esaten daben estakidxela ya eitten danin berba, ya adiñe galdute dau.*

adorau. (ADORAU, adorumatu-bat.) Adorar. | *Adorau: Ondo esan ero karixidxe eiñ-ero, adorumau.*

adorasiño, adorasiñue. (ADORAZINO, adorumaziobat., gurtza) Adoración. | *Adorasiñuen dau ori.*

adore, adorie. (ADORE) Animo, vigor, energía, valor. | *A be txakil dxeik, adorerik parik .* | *Orrek esteko adorerik pe!* | *Adorie euki bi deu.* | *Biar eitteko adore asko esteko.* □ **adore bakue.** Desanimado, -a, abatido, -a. □ **adori galdu.** Desanimarse, desalentarse. | *'Adori galdu' esaten da norberan gustora geusak urtetan estabener "Adori be galdute dau".*

adornau. (ADORNAU, adornatu-bat.) Adornar. | *Politto adornau dabe.*

ados. (ADOS) Conforme, de acuerdo. *Konforme* gehiago esaten da Nabarnizen. Ik. *konforme , batera egon (orretan).* | *Ados daus bidxe.*

adu, adue. (ADU) Sustancia, juicio, madurez. | *Adue: esate baterako, "Adu asko esteko"-edoesaten da, se imirigaittik -edo, ba ser esango neu?, alako sustantzidxe aundirik estekenagaittik -edo: "Adurik esteko". | "Adu asko esteko": umiri be bai, tte nausidxeri be bai, igul alakolaku bada.* □ **adu bakue.** Insustancial. | *Adu bakue: olanik, ser esangot neuk?, sentzun gustidxe estekona -edo, adu baku. | Apur bet adu baku da.*

adur, adurre. (ADUR, larde) Baba. | *Umik adur asko eukitten deu . | Adurre jausten dau . | Txakurrek -eta botaten dabe adurre.* □ **adurretan.** Cayéndosele la baba. | *Beren laguneri begire dauela adurretan egon san . | Danok egon giñen adurretan billotz tostaue jateko. | Bitzetan 'da adurretan egoti les.*

adurtzu, adurtzue. (ADURTSU, lerdetsu) Baboso, -a. | *Au adurtzue dok .*

afan, afana. (AFAN) **1.** Afán, empeño. Ik. *gogue. | Orrek deko afana! | Ori da afana biar eitteko! | Afana deko geusak ikesteko.* **2.** Estimación. | *Estimetan dan geuse bategaitti: "Afan aundikuk dire". | Orrek oin, jolin, afan aundikuk dire!* **3.** Fanfarronería. | *"Arranpaluori!": an ekitte euna boleak botaten. Esangurotena, afanak -eta, fanfarroye, "Arranpaluori!". Broma modun esate dxako "Arranpaluori!". | Fanfarroi da dana bera afana, dana gusurretan dabillena, fanfarroye, bera aundi eitten.*

afesiñau, afesiñae. Aficionado, -a. | *Da one bestiok, katamixarra, basakatue, da one pa es sin jatekuk. Bronkuek. Orrek siren atrapau tranpan, da afesiñau ixate sanak eitte ittuen etzerik etze ibili, eskien. Orrek kalte eundidxe eitte bese les, ardidxen da olluen da orrek, txitxan -da. Orrek txitxe erute ben. Da ordun ibiltte siren eskien. Bakixu arek etzerik etze.*

afesiño , afesiñue, apesiñue, apesiñoie. (AFEZINO, afizio-bat., zaletasun) Afición. *Apesiñoie ere batu dut, izan ere, Nabarnizko berbetan, kasu askotan, gaitza da f eta p bereizten. | Apesiñue deko. | Abadie, abadie erute basen orrek. Abadie, erriko abadie. Ori Iberrenguluko semie, Etxandia, Don Jose Etxandia san, da ak eitte ban, ak eitte tzen influ entzidxe, afesiño edo olan bertsutan. | Peskan afesiñoi kasan lantxik egoten da. Nik ikustotas an Bittoridxara bidin a subidxen.*

afrontu, afrontue. (AFRONTU) Viento fuerte. | *Afrontue da euridxe danien axik artzen daben euridxe, axik artzen daben euri saparradie, ba bentanak sabalik -edo, bertan badau-edo, etartiñ nai, ba sartu eitten dau axik, da aixe esate dxako afrontue. | Euridxe jotzen dau afrontuagaz, trabes. | Afrontuas eitten deu euridxe. | Afrontue da axik eitten daben sera.*

afusil, afusille. (FUSIL) Fusil | *Len e ba afusillas kilometro batera es ein. Oiñ e berreun kilometrora jo ta garbi. Bai.*

agarrada, agarradie. Agarrada, altercado, pendencia, riña. □ **agarradie ein.** Pelear, tener un altercado. | *Agarradie ein bi dabe. | Agarradie ein tze.*

age, aga, agie. (HAGA) Viga. | Gero gallurretik, emendik ara les, beste age bat, alderdi bidxetan, agik juten dire, atzin asi tte eurreraño juten dire. | Agie trabes egon arren, nai aidien, nai etzun egon arren, orrek agiek, olan agiek beyen ganin badas be agik dire. □ **age nausidxe.** Viga principal del tejado. | Age nausidxe onetako baserridxetako etzik e tellatun eukitten dabe, a erdiko baterik besterik, age nausidxe. □ **age untzie.** Clavo grande utilizado en la rueda del carro y distintos aperos de labranza. | Age untzie, selan esan biko tzut? Da untze bat, baya orrek untze korrintiñ aldiñ untze eundidxe da, eundidxe. Da agi be untze txikidxe joste dxakes, eundidxe pe bai, baya age untzi jeneral ganadun erreminttie joste dxake. Ganadun erreminttik eukitten deu, ag e untzie jeneral ipintte dxako, da ori ixeten da..., ser esangot neuk?, orrek pe borren ixena deko, age untzi esteutzeu orreri esaten. Astu ein dxates orrek. Ori untzi naiku untze eundidxe ixeten da, da ori untziori -oin burdirik pe esta ibiltten, serak ibiltten dire, tratorin ibiltten dire ta- baya burdidxeri erruberatan joste dxakona. Da naiku untze eundidxe ixeten da. Puntzi be eukitten deu biribille, da bera untze estutues-estutues juten da, sartzeko, da punta estue eukitten deu betik, josteko goitti bera. Oin olako untzerik e... Da orrek untzak, ganera, erosi etzirin eitten, orrek untzak errementaridxe eitte sittun. | Age untzie aintxiñeku da. Arek kuadrudun untza tire. Orrek age eundidxe-eta erute besanak. Oin age untzak esango tze oin be age eundidxei, baya danak igulek, untzak, esan guna eikeri igulaku, da len es. Len age untzi ixete san errementaridxe eindako age untzak. Oin dana biribille eitten dabe. □ **gallurreko agie.** Cumbreira, caballete del tejado. Ik. goidxagie, kaperidxe. | Gallurreko agie esaten da nausidxe, araxe doyes orrek kaperidxe. Da gero aren ganin latie, da latin ganien tellie. □ **agi euki.** Heredar un caracter o comportamiento parecido. | "Agi deke": kostubre bat tekenin-edo, alakuri ba esate dxake. □ **agatik etorri.** Heredar un caracter o comportamiento parecido. | Agatik dator. | Agatik dxatorke.

agertu, agertzen, agertuten. (AGERTU) 1. Aparecer. | Askordiñek jeneral leidxe daunin agertzen dire, leidxek eitte ittunin, orduntxe agertzen dire, bitzetan, da atzamarretan be igul, belarridxetan be bai-tte. | Askanien ardidxe bastante urrunin agertu san. | Presie ein, detenidu ure ta beko posue baldakiñ utzittu ta an agertzen siriin angillak. | Agertu da nor ixen dan. | Eurre urtzen danien, lur satidxe agertzen dire. | 'Autortu' esaten da geusa ixilleko bat agertzen danien, urteten dabenin bistara, ba "Ixilik on da, baya autortu deu", autortu da, agertu da. | Arridxe sartu goidxen, da karie otzittute beyen agertu. Eundidxe san, eundidxe. | Ori piper bedarra esate dxako onek e... Ganadun pekotzin dator ori. An dekeu guk satza, da a satza botaten bosu solora, gero ure atrapau -edo, euridxe-edo eitten daunien agertuten da a bedarra. 2. Mostrar, enseñar. | Etzeko latzak agertzen deu nor dan ori. 3. Ponerse en celo el ganado. Ik. argittu, suseratu, umeske, altan egon. | Beidxe agertu ein da. | Beidxe estok beren denporan agertu, matxorraute dxak. | Beidxeri be esate dxako, guk esteutzagu beidxeri olan esaten 'ernari', baya olanik txala artzeko-edo agertzen danien, ba esate tze batzuk "Ernari dau". Emen esta esaten. Emen "Beidxe suseratu ein da", edo "Txala eskatzen dau", edo olan esaten da.

1 agin, agiñe. (HAGIN, hortz) 1. Diente o muela. Ik. ainke ein. | Matraillagiñe. | Itxagiñe. | Albo agiñe. | Eurreko agiñe. | Agin okerra. | Minbera dekot agiñe. | Bai, agiñek dekos urteten eta! | Agiñek ondiño orniduten dekos. | Gure umieri agin bet agertu dxako. | Ago bete agin deko umiek. | -Senbat agin deko umiek? - Ago bete deko. | Agiñe apurtu. | Agin bako umie. | Agiñek txakildu ein dxakes. | Agiñek txakil dekotas. |

Agiñeri kirriskadie ereitte tze orrek saratiorrek. ' Agiñe sulotute deko. ' Agiñeko sulue. ' Agiñe loka dau ta min deko. ' Maridxe tellaganekue nik estakitt oin seri esate dxakon baya guk aintxiñe agiñe jeuste dxakoniñ agiñe, lelengoko agiñe jeuste dxakonin, arixeri esate gentzon maridxe tellaganekue, "Maridxe tellaganekue, eutzi agin sarra, ta ekarrixu barridxe!". ' Añiri be, aña egoten diriñari be lelengo agiñek urtete tzeniñ-edo, eitten dxakenin nun deken igerte tzenien amar ogerleko emote tzesala ta baya ba guk emen olakorik eskendun usetan -da. 2. Mella en el corte de un instrumento. ' Orrek kutxillok deko agiñe. 3. Cada una de las puntas o resaltos de las herramientas. ' Trontza serri ixeten da... selan esango pa? Agiñek eukitte ittu, ta beres e trontzaketan esate dxako... selan esangot? Agiñek -agiñek eukitte ittu te ba... trontze serri esate tzeu geuk esates, baya ba... ' Trontza serri de arpana diferenti dire. Aundidxau ori arpana. Da trontza serra pe, askaniñ urte ben, gu basutan ibili giñenin, Ameriketara jun orduko, agin bikotxak. Onek